



3. irudia. S. Pedro Atxarre. Gernikako itsasadarren eskuinaldearen eta Ogoño muturraren zonako mapa, Atxarreko mendilerroa eta artadi kantabriarra ageri dituena.

Figura 3. S. Pedro Atxarre. Mapa de la zona de la margen derecha de la Ría de Gernika y el cabo de Ogoño, con el macizo de Atxarre y el encinar cantábrico.

2. ibilbidea. Atxarreko San Pedro, Urdaibai: Artadi kantabriarra (3. irudia).

2A. Gomendaturiko ibilbidea

Abiapuntua: San Martin basiliza (Kanala).

Nola bertaratu: Gernikan BI-2238 errepidea hartuko dugu Lekeitiorantz. Zelaieta gunea zeharkatzen duen zuzenaren amaieran (Gautegiz-Arteaga), ezkerretara hartu behar da, Laida eta Laga hondartzetarantz. Kanala auzoaren erdialdea igarotakoan, zuzen baten amaieran eta sestra aldaketa baino lehen, BI-3234 errepidearen 42. eta 43. kilometroen artean, eskuinetara asfaltaturik dagoen bidea hartuko dugu. San Martin basilizara sigi-saga igotzen den bide horren hasieran, postontzi batzuen ondoko zurezko seinale batek San Martin basilizarako ibilbidearen iraupena (5 minutu) eta Atxarreko San Pedrorako ibilbidearen iraupena (45 minutu) adierazten ditu. Ibilgailua Kanalan uztea eta San Martin basilizara oinez joatea komeni da.

Artea (*Quercus ilex*), ibilbide honetako zuhaitz nagusia, espezie mediterranearra da eta Italiako penintsularaino nahiz Tirreno itsasoko uharteetara iriartzen da (L).

La encina (*Quercus ilex*), árbol que protagoniza este itinerario, es una especie mediterránea que se extiende hasta la Península Itálica y las islas del Tirreno (L).



Itinerario 2. San Pedro de Atxarre, Urdaibai: Encinar cantábrico (Figura 3).

2A. Itinerario recomendado

Punto de partida: Ermita de San Martín (Kanala).

Cómo llegar: En Gernika se coge la carretera BI-2238, en dirección a Lekeitio. Al final de la recta que atraviesa el núcleo de Zelaieta (Gautegiz de Arteaga), hay que tomar la desviación a la izquierda que señala hacia las playas de Laida y Laga. Después de pasar el centro del barrio de Kanala, al final de una recta y justo antes de un cambio de rasante, entre los km 42 y 43 de esta carretera (BI-3234), tomar un camino asfaltado a la derecha. Al principio de este camino, que sube serpenteando hasta la ermita de San Martín, una señalización de madera junto a unos buzones, nos indica el tiempo que dura el recorrido hasta esta ermita de San Martín (5 minutos) y a San Pedro de Atxarre (45 minutos). Es recomendable estacionar el vehículo en Kanala y llegar a pie a la ermita de San Martín.

Distancia: 4,5 km (ida).



Gurbitzak (*Arbutus unedo*) eginkizun garrantzitsua du artadi kantabriarraren dinamismoan, berori azkar ordeztzen baitu, moztzen edo erretzen denean (L).

El madroño (*Arbutus unedo*) juega un importante papel en el dinamismo del encinar cantábrico, toda vez que lo sustituye rápidamente cuando éste es perturbado por tala o por fuego (L).

Distancia: 4,5 km (joana).

Ibilbidearen gutxi gorabeherako iraupena: 2 ordu (joan-etorria).

2A ibilbidearen deskribapena

Atxarreko San Pedrorra joateko bide asko egon arren, Kanalako San Martin basilizan hasten den ibilbide hau gomendatzen dugu, honako bi arrazoi hauek direla eta: egokiena da artadi kantabriarra behatzeko eta ikertzeko, eta paisaiarik anitzena eta kontserbazio egoerarik onen dagoena zeharkatzen du. Baseliza horretara doan errepidearen eskuinetara ikusten den lehenengo eraikina, sega-belardien artean, harrizko etxola bat da; horren fatxadako harrietariko batean GR 123 bidearen seinale zuri eta gorri batek bide onetik goazela berresten du. Zenbait baserri atzean utzi ondoren, eskuinetara bi farola utziko ditugu, ibilgailuak igarotzeko debekuaren seinalearen ondoan, eta harrizko horma batean dagoen Atxarrerako seinaletik igaro ondoren San Martin basilizara iritsiko gara. Baselizako fatxadaren aurrean lau haritz motz ikusiko ditugu, eta horien azpian harrizko mahai bat eta zurezko eserleku bat. Leku horretatik Mundakako itsasadarren gaineko ikuspegi bikaina ageri da. Baseliza eraikuntza oso arruntekoa da; sarrerako atearen ondoan, zeramikazko plaka batek beraren historia kontatzen du: ofizial errromatar baten semearen omenezkoa da; 315. urtean jaio zen eta Frantziako Tours hiriko apezpikua izatera iritsi zen.

Txorbeltzaren (*Rhamnus alaternus*) hostoak artearen hostoen antzekoak dira, baina ilegabeak eta distiratsuak (L,H).



El aladierno (*Rhamnus alaternus*) tiene las hojas parecidas a las de la encina, pero son lampiñas y lustrosas (L,H).



Duración aproximada del recorrido: 2 horas (ida y vuelta).

Descripción del itinerario 2A

Aunque hay varias posibilidades para acceder a San Pedro de Atxarre, recomendamos este itinerario que comienza en Kanala, en la ermita de San Martín, por dos importantes razones: es el más idóneo para la observación y estudio del encinar cantábrico y el que atraviesa un paisaje más diverso y mejor conservado. La primera construcción que observamos a la derecha de la carretera que sube a dicha ermita, entre prados de siega, es una cabaña de piedra; en una de las piedras de su fachada, una señal blanca y roja del sendero GR 123, nos confirma que vamos por buen camino. Pasados varios caseríos, dos farolas a la derecha junto con una señal de prohibido el paso de vehículos y una indicación de Atxarre en un muro de piedra, nos anuncian la llegada a la ermita de San Martín. Frente a la fachada de la ermita, vemos cuatro grandes robles trasnochos, bajo los cuales se encuentran una mesa de piedra y un banco de madera. Desde este lugar, las vistas sobre la Ría de Mundaka son magníficas. La ermita es una cons-

Gurbitzaren azala oso berezia da, zerrenda luzeetan askatzen baita (L).

La corteza del madroño es muy característica al desprenderse en tiras alargadas (L).



Baselizara igotzeko hartu dugun bidetik jarraituko dugu, etxe batera heldu arte. Etxe horren aurrean, berdez margoturiko horma batean, zurezko kartel batek adierazten du Atxarreko San Pedrorra PR-BI 161 zidorretik dagoen distantzia (3,5 km). Bidezidor estu batek gora egiten du, mahatsondo igokariak (*Parthenocissus tricuspidata*) erdi estalitako hormaren ondotik; hormaren gainean burdinsarea dago. Leku horretan, artadian sartuko gara. Gereziondo batzuk ez ezik (*Prunus avium*), zuhaitz eta zuhaixka hostogalkorren aniztasun handia ikusiko dugu; gehienak mediterranearrak dira eta artearekin (*Quercus ilex*) eta berorren hibridoarekin (*Quercus x ambigua*) batera daude: gurbitza (*Arbutus unedo*), ereinotza (*Laurus nobilis*), txorbeltza (*Rhamnus alaternus*), gartxua (*Phillyrea latifolia*) eta liana batzuk, adibidez, *Smilax aspera* eta *Hedera helix*. Landare horiek Atxarreko San Pedro baselizarako igoeran zeharkatuko dugun artadiaren barruko berezienak dira; horiek, aurrerago deskribatuko ditugun beste flora-elementu batzuekin batera, bide osoan zehar ikusiko ditugu.

Handik gutxira, eskuinetarako bidegurutze bat daukagu, baina guk ez dugu handik joan behar. Bertan, lore horiko

Cytisus commutatus piornoa eremu kantabriar-bizkaitarreko landare endemikoa da. Ugaria da Atxarreko mendilerroan (H).

El piorno *Cytisus commutatus*, endémico de la zona cántabro-vizcaina, abunda en el macizo de Atxarre (H).



trucción muy sencilla y junto a la puerta de entrada, una placa de cerámica narra su historia: está dedicada al hijo de un oficial romano (nacido hacia el 315) que llegó a ser obispo de la ciudad francesa de Tours.

Se continúa la pista por la que hemos accedido a la ermita, hasta llegar a una casa. Delante de esta casa, en un muro pintado de verde, un cartel de madera nos indica la distancia hasta San Pedro de Atxarre (3,5 km) por la senda PR-BI 161. Un estrecho sendero sube paralelo a este muro que está recubierto en gran parte por la parra trepadora (*Parthenocissus tricuspidata*) y que remata en una verja. En este punto, nos adentramos en el encinar. Además de unos cerezos (*Prunus avium*), nos llama la atención la gran diversidad de árboles y arbustos de hoja perenne, la mayoría de carácter mediterráneo, que acompañan a la encina (*Quercus ilex*) y su híbrido (*Quercus x ambigua*): el madroño (*Arbutus unedo*), el laurel (*Laurus nobilis*), el aladierno (*Rhamnus alaternus*), el labiérnago (*Phillyrea latifolia*) y algunas lianas como *Smilax aspera* y *Hedera helix*. Estas plantas son las más características del encinar que vamos a atravesar en nuestra subida a la ermita de San Pedro de Atxarre y junto con otros elementos florísticos que iremos describiendo, nos van a acompañar a lo largo de todo el camino.

Pronto nos encontramos con una desviación a la derecha que no debemos tomar. En ese punto aparece un arbusto de flores amarillas: *Cytisus commutatus*, planta endémica de la Cornisa Cantábrica, frecuente en orlas de encinares. También empiezan a ser abundantes dos arbustos caducifolios con ramas espinosas y flores blancas en primavera: el endrino (*Prunus spinosa*) y el espino albar (*Crataegus monogyna*).

Seguimos ascendiendo y observando la dominancia de arbustos y arbolillos perennifolios hasta que nos encontramos con otro cruce del que parte una senda a la izquierda. Este es uno de los caminos alternativos que comunica con



Thuidium tamariscinum Atxarreko San Pedroko ibilbidean erraz ikusten den briofitoa da (H).

Thuidium tamariscinum es un briófito fácil de ver en el itinerario de San Pedro de Atxarre (H).

zuhaiak bat dago: *Cytisus commutatus* Erlaitz Kantabriarreko landare endemikoa da, ohikoa artadietako orletan. Halaber, arantzadun adarrak eta udaberrian lore zuriak dituzten bi zuhaiak hostogalkor gero eta sarriago ikusiko ditugu: elorri beltza (*Prunus spinosa*) eta elorri zuria (*Crataegus monogyna*).

Gorantz jarraitu eta zuhaiak nahiz zuhaitz txiki hostoiraunkorren nagusitasuna ageri da, harik eta ezkerretarako bidezidorra duen beste bidegurutzetara heldu arte. Laidako kanpinarekin bat egiten duen bide alternatiboetarikoa bat da eta 2C ibilbidean azalduta dago. Haitz baten gaineko seinale gorri eta zuri batek esango digu norabidea. Gorantz jarraituko dugu, bide estuaren ertzean hazten diren sastraka ugarietara: txilarrak (*Erica vagans*, *Daboecia cantabrica*), estrepak (*Cistus salvifolius*), oteak (*Ulex gallii*), etab. Gramineoen artean ugariena albiza da (*Brachypodium pinnatum* subsp. *rupestre*).

Soilgune handiak dituen bidearen zona batera iristean, hain zuzen ere, artadia irekitzen den lekura heltzean, San Pedro baseliza ikusiko dugu, Atxarreko mendilerroaren

el camping de Laida y que se describe en el itinerario 2C. Una señal roja y blanca en una roca aflorante, nos ayuda ante la indecisión. Continuamos hacia arriba, fijándonos en las numerosas matas que crecen en los bordes del estrecho camino: brezos (*Erica vagans*, *Daboecia cantabrica*), jaras (*Cistus salvifolius*), argomas (*Ulex gallii*), etc. Entre las gramíneas, la más abundante es el lastón (*Brachypodium pinnatum* subsp. *rupestre*).

Al llegar a una zona del camino con grandes claros, donde el encinar se abre, divisamos ya la ermita de San Pedro sobre la cumbre de la alineación montañosa de Atxarre. Aquí predominan los madroños (*Arbutus unedo*), que alcanzan importantes alturas. Trepar sobre sus troncos proliferan *Smilax aspera* (zarzaparrilla) y *Rubia peregrina*. Un poco más adelante, empiezan a observarse robles (*Quercus robur*) y castaños (*Castanea sativa*). Los suelos son en esta zona más profundos y arcillosos, desarrollados en una dolina, elemento frecuente en este paisaje kárstico de la margen derecha de la Ría de Mundaka. La potencialidad desde el punto de vista vegetal, corresponde a un robledal de *Quercus robur*, pero dominan los castaños, antaño plantados por el hombre para su aprovechamiento (castañas, made-

Smilax aspera artadi kantabriarreko landare ugarienetarikoa bat da (H).

Smilax aspera es una de las plantas más abundantes del encinar cantábrico (H).



gailurrean. Bertan gurbitzak dira nagusi (*Arbutus unedo*), eta nahiko garaiak dira. Horien enborren gainean *Smilax aspera* (endalaharra) eta *Rubia peregrina* espezie igokariak ikusiko ditugu. Apur bat aurrerago, haritzak (*Quercus robur*) eta gaztainondoak (*Castanea sativa*) ikusiko ditugu. Zona honetan lurzorua sakonagoak eta buztintsuak dira, eta dolina batean garatuta daude; elementu hori ugaria da Mundakako itsasadarraren eskuinalde honetako paisaia karstikoan. Landarediaren ikuspegitik aipagarriena harizti bat da (*Quercus robur*), baina gizakiak antzina bere aprobetxamendurako (gaztainak, zura, etab.) landaturiko gaztainondoak nagusitzen dira. Gaztainondoaren garrantziaren adibidetzat, 1750. urteko datu bat daukagu: urte horretan gaztaina lurraldeotako biztanleen mantenuaren osagaia zen urtearen heren batean (Gogeaskoetxea, 1993). Bideak basurde-putzu bat zeharkatzen du; bertan, Urdai-baiko artadietan hain ugariak diren basurdeak iraulkatu egiten dira, basaz betetzeko eta, horrela, parasitoak aldetik kentzeko. Gainera, horren inguruan, basurdeek basaz zikindutako enborrak ikusten dira, basaz bete ondoren zuhaitz horien kontra igurzten baitira.

Asplenium onopteris iratzea ugaria da oihanpean eta artadi kantabriarraren ertzetan (H).

El helecho *Asplenium onopteris* es frecuente en el sotobosque y los bordes del encinar cantábrico (H).



ra, etc.). Como ejemplo de la importancia del castaño, disponemos del dato relativo al año 1750, en el que las castañas contribuían al mantenimiento de la población en estos territorios, una tercera parte del año (Gogeaskoetxea 1993). El camino atraviesa una baña de jabalí, lugar donde los cerdos salvajes, tan abundantes en los encinares de Urdai-bai, se revuelcan para impregnarse de barro en su afán por desparasitarse. Además, en derredor pueden verse los troncos manchados de barro por los jabalíes que se frotran contra los árboles una vez embadurnados.

Volvemos a atravesar una zona con encinar hasta llegar a un pinar de *Pinus radiata* con mucha argoma (*Ulex gallii*). Observamos de nuevo muy abundante *Cytisus commutatus* acompañado del helecho común (*Pteridium aquilinum*) y otras plantas del brezal-argomal: *Erica cinerea*, *Daboecia cantabrica*, *Lithodora prostrata*, *Molinia caerulea*, *Potentilla erecta*, etc.

Nuevamente, nos adentramos en el encinar hasta llegar a un claro donde se sitúa un cruce señalizado con un poste de madera: Si tomamos el camino hacia la izquierda llegaremos a San Pedro de Atxarre tras un km de recorrido. Hacia la derecha el camino sigue hasta Akorda (1,5 km). También indica la dirección de la que venimos, Kanala. Esta zona se conoce con el nombre de “Dantzaleku”, topónimo que tiene su origen, según dicen los lugareños, en la celebración de akelarres.

Seguimos ascendiendo por la pedregosa senda de la izquierda, observando la estructura del encinar cantábrico típico: un bosque bastante impenetrable, dominado por encinas y con un sotobosque muy sombrío donde predominan rocas aflorantes cubiertas por algunos musgos (M. Infante & P. Heras, det.) como *Ctenidium molluscum* e *Hypnum cupressiforme* var. *cupressiforme* y con pocas plantas: *Ruscus aculeatus* y *Hedera helix*; en los bordes del camino, a la sombra de árboles y arbustos, aparecen algunos helechos como *Asplenium onopteris* y *Polypodium interjectum*. El



Rubia peregrina baso mediterraneanearreko lianarik hedatuenetariko bat da (H).

Rubia peregrina es una de las lianas más extendidas del bosque mediterráneo (H).

Berriro ere artadia duen zona bat zeharkatuko dugu, *Pinus radiata* espezieko pinudi batera iritsi arte, eta bertan ote asko dago (*Ulex gallii*). *Cytisus commutatus* ere ugari ikusiko dugu berriro ere, iratze arruntarekin (*Pteridium aquilinum*) eta txilardi-otadiko beste landare batzuekin batera: *Erica cinerea*, *Daboecia cantabrica*, *Lithodora prostrata*, *Molinia caerulea*, *Potentilla erecta*, etab.

Ostera ere artadian sartuko gara, zurezko zurtoin batekin seinalezaturiko bidegurutze batean dagoen soilgunera iritsi arte: ezkerreko bidea hartuz gero, Atxarreko San Pedrorra iritsiko gara, kilometro bat ibili ondoren. Eskuinetara, bidea Akordarantz doa (1,5 km). Orain arte ekarri dugun norabidea ere adierazten du: Kanala. Zona horri “Dantzaleku” esaten diote, eta toponimo horren jatorria, bertakoek diotenez, han akelarreak egitearen ondoriozkoa da.

Ezkerreko bidezidor harritsutik gora jarraituko dugu, ohiko artadi kantabriarraren egiturari erreparatuz: baso nahiko itxia, arte askorekin; oihanpe oso iluna eta bertan haitzak nagusi, goroldio batzuekin estalita (M. Infante & P. Heras, det.), esate baterako, *Ctenidium molluscum* eta

encinar cantábrico vive sobre las calizas urgonianas que constituyen esta sierra de Atxarre. En este tramo de nuestro paseo hasta la ermita, puede observarse claramente la orla espinosa del encinar constituida por plantas como *Rosa sempervirens*, de flor blanca y hojas brillantes, *Rubus ulmifolius* (zarza) cuyo fruto es la mora, y otras trepadoras que ya hemos comentado anteriormente: *Smilax aspera* (zarzaparrilla) y *Rubia peregrina*.

Poco antes de llegar a la ermita de San Pedro, en zonas donde aflora mucho la roca caliza, se desarrolla un matorral de sustitución del encinar caracterizado por una mata espinosa de flores con corola papilionácea amarilla: *Genista hispanica* subsp. *occidentalis* (otabera), a la que acompañan *Helianthemum nummularium* y *Cistus salvifolius*, entre otras plantas.

La ermita de San Pedro de Atxarre está ubicada en el monte San Pedro, a 312 m de altitud. Dos buzones se localizan frente a la puerta de la ermita: uno en forma

Rosa sempervirens arkakaratsak izaera mediterraneanar naberia du: beti berdea da eta banaketa eremuan oso hotzak ez diren habitatak bilatzen ditu (H).

Rosa sempervirens tiene un marcado carácter mediterráneo: es siempreverde y en su área de distribución busca hábitats poco fríos (H).



Hypnum cupressiforme var. *Cupressiforme*, eta landare gutxi: *Ruscus aculeatus* eta *Hedera helix*; era berean, bide ertzetan, zuhaitzen eta zuhaixken gerizpetan iratze batzuk agertzen dira, adibidez, *Asplenium onopteris* eta *Polypodium interjectum*. Artadi kantabriarra Atxarre mendilerro hau osatzen duten kareharri urgoniarren gainean bizi da. Baselizarainoko ibilbidearen tarte horretan, artadiaren orla ikusten da, eta hori honako landare hauek osatzen dute: *Rosa sempervirens*, lore zurikoa eta hosto distiratsukoa, *Rubus ulmifolius* (laharra), masusta ematen duena, eta lehen aipatu ditugun beste igokari batzuk, adibidez, *Smilax aspera* (endalaharra) eta *Rubia peregrina*.

San Pedro baselizara iritsi baino apur bat lehenago, azalean kareharri ugari dagoen zonetan, artadia ordeztzen duen sastrakadi bat garatzen da; bertako landare bereizgarria mulu arantzatsu bat da, korola papilonazeoko lore horiak dituena: *Genista hispanica* subsp. *occidentalis* (otaberra), eta berarekin batera *Helianthemum nummularium* eta *Cistus salvifolius* daude, besteak beste.

Atxarreko San Pedro baseliza San Pedro mendian dago, 312 m-ko altitudetan. Baselizaren ate ondoan bi postontzi daude: bata Goi Zale Mendi Taldearena (1997), dado itxurakoa, eta bestea Bancobao-rena (1967). Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako plaka bat ere badago, eta bertan baseliza berreraiki zen data agertzen da. Antzina, San Gregorio egunean, jendea leku horretara joaten zen; ur bedeinkatua disolbaturiko gatza banatzen zen, gaztainondo eta ereinotzar adarrez egindako gurutzeak bedeinkatzeko; gurutze horiek baratzeetan jartzen ziren uztak babesteko.

Egun argia dagoenean Atxarreko begiratokitik kostaldea ikusten da, Matxixako muturretik Ogoño muturrera bitartean, baita Izaro uhartea, Sollube mendia, Mundakako itsasadarra (bertako padurekin eta hareatzekin), Laida hondartza eta udalerrri batzuk ere: Busturia, Sukarrieta, Mundaka, Bermeo, etab. Leku horretatik, gainera, Urdai-baiko paisaia bereziaren panoramika oso ederra gozatzen da; UNESCOk “Biosfera Erreserba” izendatu zuen ingu-

de dado del Goi Zale Mendi Taldea (1997) y otro del Bancobao (1967), así como una placa de la Diputación Foral de Bizkaia con datos de la fecha de reconstrucción de la ermita. Antaño, el día de San Gregorio, se acudía a este lugar donde se repartía sal disuelta en agua bendita para bendecir las cruces de avellano y laurel que luego se colocaban en las huertas para proteger las cosechas.

En un día despejado, desde el mirador de Atxarre se divisa con claridad la costa desde el Cabo Matxixako hasta el cabo Ogoño, la isla de Izaro, el monte Sollube, la ría de Mundaka con sus marismas y arenales, la playa de Laida, y diversos municipios: Busturia, Sukarrieta, Mundaka, Bermeo, etc. Desde este lugar, podemos además disfrutar de una espléndida panorámica del singular paisaje de Urdai-bai, una de las razones que le ha hecho merecedor de la figura de protección de la UNESCO: “Reserva de la Biosfera”. La margen izquierda de la ría, está más humanizada y abundan, entre prados y caseríos, los cultivos de pino y eucalipto. En la margen derecha, sobre todo en la desembocadura del estuario de Mundaka, el mejor conservado del litoral vasco, predomina el encinar cantábrico, objeto de observación y estudio de este itinerario. Este bosque, bien desarrollado y recuperado tras el abandono de las actividades de extracción de madera para leña o carbón, está incluido dentro del Área de Especial Protección de encinares cantábricos que establece la ley 5/1989 de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera. Al ser un bosque con árboles y arbustos perennifolios, puede ser visitado y estudiado en cualquier época del año. Las tonalidades de verde que presenta cambian dependiendo de la abundancia de madroños (color más brillante y claro) o de encinas (color más ceniciento). La presencia en el encinar de algunos árboles caducifolios en zonas con suelo más profundo (dolinas), se reconoce mejor en otoño e invierno.

ru natural hori. Itsasadarraren ezkerreko aldea gizatiar-
tuagoa da, eta, belardi eta baserrien artean, landatutako
pinu eta eukaliptoak ageri dira. Eskuineko aldean, batez
ere Mundakako estuarioaren bokalean (Euskal Herri
osoan kontserbazio egoerarik onena duena), artadi kan-
tabriarra nagusitzen da eta horixe ikusi eta ikertuko dugu
ibilbide honetan. Baso hori ondo garatuta eta suspertuta
dago, egurretarako edo ikatzetarako zura ateratzeko jar-
duerak amaitu zirenetik; basoa Biosfera Erreserba Babestu
eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legeak ezarritako arta-
di kantabriarren Babes Bereziko Eremuen barruan dago.
Zuhaitz eta zuhaixka hostoiraunkorrek dituen, basoa
edozein urtarotan ikusi eta aztertu ahal da. Berdearen to-
nuak aldatu egiten dira, gurbitzak (kolore distiratsua
eta argiagoa) edo arteak (kolore grisagoa) nagusitzearen
arabera. Artadian zuhaitz hostogalkor batzuk daude lur-
zoru sakonagoko zonetan (dolinak), eta horiek hobeto
ikusten dira udazkenean eta neguan.

Ibilbide alternatiboak:

2B. Abiapuntua: Akorda, Ibarrangelu udalerriko auzoa.

Distantzia (Atxarreko San Pedro baselizaraino):
2,5 km.

Gutxi gorabeherako iraupena: ordubete (joan-eto-
rria).

Nola bertaratu: Gernikan Lekeitiorako errepidea har-
tuko dugu (BI-2238); Zelaieta gunea igaro ondoren
(Gautegiz-Arteaga), Laga eta Laida hondartzak adierazten
dituen bidegurutzea ezkerretara utzi eta bi kilometrotan
aurrera jarraituko dugu, Ibarrangelurantz (BI-2237). Laga
hondartzara doan errepidea hartuko dugu ezkerretara.
Handik kilometro batera, gutxi gorabehera, Akordarako
bidegurutzea aurkituko dugu (BI-4236). Akordan sartu
baino lehen, sestra aldaketa batean, bidegurutze zabal bat
ikusiko dugu; bertan, errepidearen bi aldeetan, Iruskietara

Itinerarios alternativos:

2B. Punto de partida: Akorda, barrio del municipio de
Ibarrangelu.

**Distancia (hasta la ermita de San Pedro de Atxa-
rre):** 2,5 km.

Duración aproximada: 1 hora (ida y vuelta).

Cómo llegar: En Gernika, tomar la carretera a Lekeitio
(BI-2238) y una vez pasado el núcleo de Zelaieta (Gau-
tegiz-Arteaga), dejar un desvío a la izquierda que indica
las playas de Laga y Laida y seguir unos dos kilómetros,
dirección Ibarrangelu (BI-2237). Tomar a la izquierda
una carretera que se dirige a la playa de Laga. A un ki-
lómetro aproximadamente, encontramos una desviación
hacia Akorda (BI-4236). Antes de entrar en Akorda, en
un cambio de rasante, vemos un amplio cruce del que
salen a ambos lados de la carretera unos caminos que se
dirigen a los barrios de Iruskietara y Gendika, a izquierda y
derecha respectivamente. Una señal de madera, de frente,
si aparcamos en el lado izquierdo, nos indica: San Pedro
de Atxarre, 2,5 Km.



Zidorra artadi trinkoaren
erditik doa (H).

El sendero se abre paso por
medio del espeso encinar
(H).



Kartel batzuek norabideak eta distantziak adierazten dituzte (H).

Un conjunto de carteles indicadores señalan las direcciones y las distancias (H).

eta Gendika auzoetara doazen bideak abiatzen dira, ezkerretara eta eskuinetara, hurrenez hurren. Ezkerretara apartatuz gero, aurrean dagoen zurezko seinale batek hauxe adierazten du: Atxarreko San Pedro 2,5 km.

2B ibilbidearen deskribapena

Akordatik doan ibilbide hau laburragoa da eta aldapa leunagoa du guk gomendatzen dugunak baino (Kanalatik). 2B deritzon ibilbide honen hasierako zatia ez da hain interesgarria, *Pinus radiata*-ren pinudietan zehar doalako.

Sega-belardiz inguraturiko basoko bide zabal batean hasiko dugu ibilbidea. Aurrera jarraituko dugu, eskuinetara zurezko seinale bat aurkitu arte. Bertatik hartu eta honako hau ikusiko dugu: arteak (*Quercus ilex*), gurbitzak (*Arbutus unedo*), hurritzak (*Corylus avellana*), zuhandorrek (*Cornus sanguinea*), arrosak (*Rosa sempervirens*) eta endalaharra (*Smilax aspera*) eskuinetara, eta gaztainondoak (*Castanea sativa*) dituen sega-belardi bat ezkerretara. Handik gutxira *Pinus radiata* espeziearen pinudi landatu batera helduko gara; horren barruan artadi gunee batzuk ere badaude.

Descripción del itinerario 2B

Este itinerario desde Akorda, es más corto y con menos desnivel que el recomendado por nosotros, que es el que sale de Kanala. El tramo inicial de éste (2B) tiene menos interés porque discurre entre pinares de *Pinus radiata*.

Iniciamos el camino por una pista ancha rodeada de prados de siega. Seguimos hasta encontrar una señal de madera a nuestra derecha. Tomamos esta desviación, que discurre entre un seto de encinas (*Quercus ilex*), madroños (*Arbutus unedo*), avellanos (*Corylus avellana*), cornejos (*Cornus sanguinea*), rosas (*Rosa sempervirens*) y zarzaparrilla (*Smilax aspera*) a la derecha y un prado de siega con castaños (*Castanea sativa*) a la izquierda. Enseguida llegamos a un pinar de repoblación de *Pinus radiata*, que a veces alterna con algunos retazos de encinar. Incluso bajo los pinos se desarrollan las plantas esclerófilas típicas de este tipo de bosque: madroños, labiérnagos. Seguimos todo recto sin desviarnos en ningún momento. Pasamos un lugar conocido como “Hirugaztañeta” donde se encuentran tres

Barrualdean, artadi kantabriarra baso iluna eta trinkoa da, eta bertan lurzorua eta enborrak tapizatzen dituen huntz asko dago (H).

En su interior, el encinar cantábrico es un bosque sombrío e intrincado en el que hay abundante hiedra que tapiza suelo y troncos (H).



Pinuen azpian ere artadietan ohikoak diren landare esklerofiloak garatzen dira: gurbitzak, gartxuak. Zuzen-zuzen jarraituko dugu, inondik inora ere desbideratu gabe. “Hirugaztañeta” izeneko leku batetik igaroko gara; bertan hiru gaztainondo daude, eta horien gerizpean jarleku bat. Bidetik jarraituko dugu, “Dantzaleku” zonako bidegurutzera iritsi arte; bertan, zurezko kartel batek Kanalarako (4,5 km), Akordarako (1,5) eta Atxarreko San Pedrorako (1 km) distantziak adierazten ditu. Bertatik San Pedro baselizaraino, artadian bete-betean sartuko gara. Azken zati hau Kanalatik (2A) gomendaturiko ibilbidean azalduta dago.

2C. Abiapuntua: Laidako kanpina.

Nola bertaratu: Arteagatik Laida eta Laga hondartzarako BI-3234 errepidea. Kanpina inguru natural ikusgarrian kokaturik dago: artadien artean, Urdaibaiko itsasadarraren eskuineko aldean, Sukarrietaren aurrean eta Laida hondartzatik oso hurbil. Kanpina dagoen lurrak, Arketako badian, berrogeiko hamarkadan itsasoari irabazitakoak dira.

Ibilbidearen distantzia (Atxarreko San Pedro baselizaraino): 5 km.

Cistus salvifolius estrepa artadi kantabriarreko soilguneetan dago, txilarrekin eta otaberekin batera (H).

La jara *Cistus salvifolius* está en los claros del encinar cantábrico, junto con brezos y otaberas (H).



Izaro uhartea inguruko elementu enblematikoenetarikoa da eta itsasadarraren sarreran kokaturik dago (H).

El islote de Izaro, uno de los elementos emblemáticos en el entorno, se sitúa a la entrada de la ría (H).

grandes castaños y a su sombra un banco. Seguimos el camino hasta llegar al cruce en la zona de “Dantzaleku”, donde un letrero de madera señala las distancias y direcciones para llegar a Kanala (4,5 km), Akorda (1,5) y San Pedro de Atxarre (1 km). Desde aquí hasta la ermita de San Pedro, nos adentramos de pleno en el encinar. Este último tramo se describe en la opción recomendada desde Kanala (2A).

2C. Punto de partida: Camping de Laida.

Cómo llegar: Carretera BI-3234, desde Arteaga a las playas de Laida y Laga. El camping está situado en un entorno natural inmejorable: entre encinares, en la margen derecha de la ría de Urdaibai, frente a Sukarrieta y muy cerca de la playa de Laida. Los terrenos sobre los que se asienta el camping, en la denominada ensenada de Arketas, fueron ganados al mar en los años cuarenta.

Distancia del recorrido (hasta la ermita de San Pedro de Atxarre): 5 km.

Gutxi gorabeherako iraupena: 90 minutu (joan-etorria).

2C ibilbidearen deskribapena

Kanpinaren ezkerretatik abiatzen den bide estua eta alda-pa handikoa hartuko dugu (Atxarreko San Pedro baselizarantz begiratu, eta itsasadarrari lepoa emanez); bertatik antzinako harrobi batera iritsiko gara. Bide harritsu horren bi aldeetan, arteak (*Quercus ilex*), gartxuak (*Phillyrea latifolia*) eta gurbitzak (*Arbutus unedo*) daude, baita mulu batzuk ere, esate baterako *Cistus salvifolius* eta *Erica vagans*, eta *Smilax aspera* liana. Harrobira heldu ondoren itsasadarren ikuspegi zabala ageri da, eta, kareharrizko hormen gainetik, kontserbazio egoera oneko artadi bat ikusiko dugu. Harrobiaren zona honetan substratua oso harritsu da. Bertan, zuhaitz eta zuhaixka hostoiraunkor batzuekin batera, oilarana ere ikusiko dugu (*Prunus mahaleb*), hosto distiratsuko zuhaitz txiki hostogalkorra, bihotz itxurako hostoak dituena; San Pedro baselizaren ondoan ere ikusiko dugu. Une honetan zabalagoa den bidezidorrak kanpin osoa inguratu eta intsinis pinuaren (*Pinus radiata*) pinudian sartzen da; malda handia igotzen du, San Martin baselizatik (Kanala) datorren bidearen bidegurutzetara.

Atxarreko San Pedro baseliza San Pedro mendiaren tontorrean dago, 311 m-ko altitudetan (H).

La ermita de San Pedro de Atxarre corona el monte de San Pedro a 312 m de altitud (H).



Tontoretik eta baselizatik Mundaka eta Bermeo herriak ikusten dira, itsasadarraren ezkerreko ertzean (H).

Desde la cumbre y la ermita se divisan los pueblos de Mundaka y Bermeo, en la orilla izquierda de la ría (H).

Duración aproximada: 90 minutos (ida y vuelta).

Descripción del itinerario 2C

Tomamos un camino estrecho y empinado que sale desde el lado izquierdo del camping (mirando hacia la ermita de San Pedro de Atxarre, de espaldas a la ría) y que va a parar a una antigua cantera. A ambos lados de este pedregoso camino, se desarrollan encinas (*Quercus ilex*), labiérnagos (*Phillyrea latifolia*) y madroños (*Arbutus unedo*), así como algunas matas: *Cistus salvifolius*, *Erica vagans* y la liana *Smilax aspera*. Una vez que hemos llegado a la cantera, podemos contemplar unas buenas vistas de la ría y por encima de los paredones calizos, un encinar bien conservado. En esta zona de la cantera donde el substrato es muy pedregoso, es frecuente además de algunos árboles y arbustos perennifolios, el cerezo de Santa Lucía (*Prunus mahaleb*), un arbolillo caducifolio de hojas brillantes con forma acorazonada que podremos observar también junto a la ermita de San Pedro. La senda que ahora se hace más ancha, bordea todo el camping, penetra en un pinar de pino de Monterey (*Pinus radiata*) y sube con una pronunciada pendiente hasta un cruce del camino que viene de la ermita de San



Santa Luziaren gereziondoa (*Prunus mahaleb*) espezie submediterranearra da eta Atxarreko artadietan aurkituko dugu (H)

El cerezo de Santa Lucía (*Prunus mahaleb*), especie de carácter submediterráneo, se halla en los encinares de Atxarre (H).

bateraino. Bidearen bi aldeetan oteak (*Ulex gallii*), iratze arruntak (*Pteridium aquilinum*) eta txilarrak (*Erica cinerea* eta *Daboecia cantabrica*) aurkituko ditugu. Bidegurutzera heldutakoan, artadiko landare esklerofiloak nagusitzen direla ikusiko dugu. Leku horretan ezkerretara hartu eta bidezidorretik jarraituko dugu “Dantzalekuko” bidegurutzera heldu arte; bidegurutze horretan seinale batek Atxarreko San Pedro (ezkerretara) eta Akorda (eskuinetara) adierazten ditu. Hortik aurrerako ibilbidea lehen azaldu dugun 2A ibilbidearena da.



Baselizatik ikusten den kareharrizko mendilerroa artadi handiekin estalita dago, eta horixe da Urdaibai Biosfera Erreserbaren baliorik aipagarrienetarikoa (L)

El macizo calcáreo que se divisa desde la ermita está cubierto de extensos encinares, uno de los valores más notables de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (L).

Martín (Kanala). A ambos lados del camino abundan las plantas características de un matorral dominado por argomas (*Ulex gallii*), helecho común (*Pteridium aquilinum*) y brezos (*Erica cinerea* y *Daboecia cantabrica*). Al llegar a ese cruce, observamos que predominan las plantas esclerofilas del encinar. Es entonces cuando debemos desviarnos a la izquierda y seguir la senda hasta llegar al cruce de “Dantzaleku”, donde una señal indica, a la izquierda, la ermita de San Pedro de Atxarre, a la derecha, Akorda. A partir de aquí, el itinerario continúa por el mismo recorrido que el recomendado (2A).